

JON MIRANDE

Felipe JUARISTI



Zaila da esatea Jon Miranderi buruz orain arte ez esandakoa. Ni baino jende kualifikatuagoa aritu izan baita haren lana aztertzen: batzutan disezioa egiten; bestetan, inpresionismo handikiz; askotan haren bizitzari buruzko erlatibismo "laisse faire"zko horniturik. Arraroa izan baitzen bizitzean, eta arraroa izan da haren lana. Bizitzean kritikatu eta zirikatua izan zen. Jakina, garai bateko euskal "intelligentsia" ondo hezi, kristau eta ondo pentsatu-zaleak ez zion barkatu ezdemokrata izatea. Oraindik ere, gaurregun, liberalismoaren eta tolerantziaren izenean mintzo diren zenbait intelektualek Pavlov-en zakurrarena egiten dute haren izena entzun ahalean. Izan ere fobia batzuk betikoak eta santa sekulakoak baitira, batez ere gure herri sakristau honetan. Ez naiz haren bizitzeaz arituko. Sufritu egin zuen mendeko izurritea, bakardadea, alegia. Eta bakartia izan zelako, atxiki zitzaion beste gaitz bati malenkoniari, hain zuzen. Edo malenkoniak jota bizi izan zelako atxiki zitzaion bakardadeari. Nork daki? Baina kurioa da baieztatzea, Frantzian Celine eta beste intelektual edo idazle faizisten lana berriro ateratzen ari direnean zoko ezkutu hezetik, bereizketa egiten hasiak direnean frantziarrak bizitzea eta literaturaren artean, gurean, oraindik, fantasmekin bizitzea. Mirande, malditotzat jotzea. Nire eritzia da, baina uste dut, ezin dela Mirande ulertu garaiko frantziar kultura ulertu gabe; edoeta, gauzak urrunago eramanez gero, garaiko mendebalearrak kultura ententitzen saiatu gabe.

Gero bai, hil zenez geroztik, esan zuten, herriaren ahotsa diren eta duten jakintsu zein kritikari zein pentsaleriek poeta izan zela, eta ez nolanahikoa. Hildakoek ez baitute trabarik egiten. Eta egia da, batez ere poeta izan baitzen.

Atera berria da, eta gaian sartzeko diot, Euskal Herriko Unibertsitateak kaleratutako "lhun-Argiak", Miranderen poesia biltzen duen liburu elebiduna, euskaraz-gazteleraz, artikulutxo hau idazten ari den honek erderatua. Ez da euskaratik gastelearrera itzultzea ohizko den zer-bait. Nik dakidanez, Aresti, Bernardo Atxaga eta beste gutxi batzuk izan dute ohore hori. Hemendik aurrera halako prozesuak sarriago gertatuko direlakoan nago, baina harrigarria da gure gizarte honetan automatikoagoak ez izatea. Zergatik? Euskaldunon "bizkaitar" konplexu zerbantinoa ez da batere txantxetako arrazoa.

Eta orain datorren galdera da garrantzia duena. Zer aporta diezaioke Miranderen poesiak gaurregungo kulturari? Saia gaitezen erantzuten.

Badu zerikusirik joan zen mende amaieran eta gure mende haseraino iraun zuen mogimendu batekin, erromantizismoarekin. Baina, Miranderen erromantizismoa berantiarra izan zen oso, gurean mogimendu guztiak beranduagoak izan baitira. Beti harrapatu izan dugu olatua erreflujoan, bueltan zetorrenean. Ai, euskaldunok! Ai, gure gizartea!

Miranderen aberastasuna, dena dela, bere ezagutzak argitzen du. Literatura unibertsala menderatzen zuen. Haren poemak oihartzunez beteta daude: Epikuro, Lukrezio, Katulo, Erdi Aroko baladak, keltiar tradizioa, Languedoc-eko kantutegia, eta batez ere, Poe, Baudelaire, besteak beste. Soinu egiten dute haren poemetan Spengler-en eta Nietzsche-ren formulazio filosofikoek. Guzti hori, pesimismo sakon batez estalirik, ironia fin leun batez arindurik, tristezia urrutiko zehazgabe batez pintaturik. Bizitze honetan bere lekuri aurkitu ez balu bezala. Eta seguruaski, halaxe izango zen. Eduardo Gil Berak aipatu dugun edizio horretako sarrean antzeko zerbait dio, hemengoa ez zela amestu zuela hark berak ere, beranduago Joseba Sarrionandiak, Miranderen jarraitzaile hau ere, bizi izan zuen modura.

Eta azkenik urak nire errotara ekarriz, esan dezaket, Mirande itzultzea abentura polita izan dela niretzat. Baina ezinezkoa izan zaidala bere horretan itzultzea, eta jatorrizkoari fidel eta zuzen jarraitzea: estrofismoak erabat ezberdinak dira gasteleeraz eta euskaraz. Hizkuntza bakoitzak bere errimo mentala baitu, eta horrekin batera bere musika.